



Andoaingo Udala



Andoaingo Udalak 5 lanposturen eskaintza egin du, Tokiko Enplegua sustatzeko ekintza modura

Andoainen, 23-11-14.- Ez dago esan beharrik garai zailak bizi ditugula zentzu askotan, baita arlo ekonomikoaren ere. Arrazoiak ugariak dira, baina ondorioak zehatzak: geroz eta behar gehiago dugu lan arloan trebatzeko, esperientzia biltzeko... lana egiteko, azken finean.

Hala, dei horri erantzunez, Andoaingo Udalak tokiko enplegua sustatzeko 5 lanposturen eskaintza egin du. Honako lanpostu hauek dira:

- 2 administrari
- Testu zuzentzailea – Euskara
- 1.Mailako Iturgin ofiziala
- 1.Mailako Igeltsero ofiziala

Baldintza batzuk behar dira lanpostu horiek eskuratu ahal izateko:

- *Langabezian egotea eta Lanbiden izena emanda egotea
- *Eskualdeko herriren batean erroldatuta egotea (Andoaingoa izatea baloratuko da)

Lan horietan trebatzeko aukera emateaz gain, 5, 6 edo 9 hilabeteko kontratuaren eskaintza egingo da.

Izen-ematea azaroaren 20an, astelehenean amaituko da, eta Lanbiden egin behar da.

Nabarmentzekoa da ez direla Andoaingo Udaletik egingo diren lan eskaintza bakarrak; epe laburrean segmentu zehatz batzuetara bideratutako lanpostuak eskainiko direla ere aurreratu nahi du Udalak.